

GUaiXE.eus



Jose Luis Iriarte, zilarrezko domina Europan



Kirolak >> 10

Etxeberri, Hiriberri eta Ziordia festetan bete-betean. Haiek despeditu eta Altsasu lekukoa hartzeko prest da



Sakanerria >> 2/6/14-15



Bigarren etapak, Burgostik abiatu eta Pasaia helmuga. ARGAZKIA: ALBAOLA.

Gurdiak bidean >> 5

Urbasa-Andian belar gutxi; traba handiak abeltzainendako

Behi gehienak jaitsi dituzte eta ernai dauden behor eta ardiei elikagai osagarriak ematen ari dira >> 8

Arianen Irurtzungo 14 langileak, subrogatuta, lanean segituko dute

Konkurtsu-administratzaileak enpresako gainontzeko 82 langileak kaleratzeko eskaera egin du epaitegian >> 8

Altsasuko haur eskolako lanak bi aste barru hasiko dira

Urte bukaerarako despedituta >> 7



Javier Zeberio bakaikuarra Cho Oyurako bidean >> 12



Otsoportillo eta gero memoria ekitaldiak larunbatean >> 7



Haurrekin liburuak nola irakurri ikasteko? >> 13

Bihar Altsasun finalerako txartelak >> 10

87. Altsasuko txirrindulari proba >> 11



ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860



Irailak

9-15

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Ametz

Gure Ametsek bi urte betetzen ditu. Egun zoragarria pasa dezazula, polita! Muxu asko amona, Mario, Ainhoa, zure osaba-izeba Alfredo eta Lourdes eta Naroaren partez.

Elorri

ZORIONAK !!

Azkenean iritsi da hainbeste itxosten ari zinen eguna. Zazpi urte bete dituzu, potxola. Disfrutetu zure egunaz eta datozenetaz. Muxu erraldoiak etxekoan partez.



Ainhoa Mazkiaran

ZORIONAK, bihotza, Amato eta beste senideen partez. Asko maitate zaitut!!!!

Lur Azpiroz Andueza

Mille kilo zorion zui lendaziko urtien. Politte! Muxu pila pila zui familiekuen partez.

Musika

Erkudengo Amaren kantu erronda.

Irailaren 11n, domekan, 20:00etatik aurrera Altsasun barna Foru plazara.

Dantza

Dantza-jaialdia. Irailaren 13an, asteartean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gune pareko plazan. Etorkezuna dantza taldea.

Mendi irteerak

Etxarri Aranatz-Bakedano. Irailaren 11n, igandean, 7:00etan Etxarri

Aranaztik. Sakanako Mendizaleak.

Hitzaldiak

Diabetesa: elikadura eta zailtasun posibleak aurrez ikustea. Irailaren 14an, asteazkenean, 17:00etan Lakuntzako Gure Nahia elkartearen. Hizlariak: **Laura Francisco eta Juantxo Remon.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Gasteizko urtegia-Altsasu. 108 km. Irailaren 10ean, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. **Zikloturista taldea.**

Lizarragako tunela. 48 km. Irailaren 11n, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Barranka txirridulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Festetako kartel lehiaketa. Irailaren 10era arte, 10:00etatik 14:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

Hilotzak hobituk ateratzen, duintasunak berreskuratzen.

Irailaren 9tik 18ra arte, astegunetan 10:00etatik 14:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Uharteko Arakilgo udaletxean. **Uharteko Arakil 80**

urtez Memoria galtzen.

Bestelakoak

1936an eraildakoei omenaldia. Irailaren 10ean, larunbatean, 17:00etan Altsasuko Sozarretan, N-1 zaharraren 5. km-an.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 9an, ostiralean, 20:00etan Arbuzuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 11n, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzeak.

FESTAK

ETXEBERRI

>> Irailak 9, ostirala

9:00etan Txikiak autobusera.
9:30ean Hamarretakoa.
14:30ean Paella-jana.
17:00etan Herri-kantak.
18:00etan Orritz dantza taldea.
19:30ean Korri harrapatuko zaitu eta!, Etxeberriko kiliki txikiak eta txistulariak.
20:00etan Dantzaldia Fidelekin.
21:30ean Pintxo potea eta atzera pausoa. Hirugiharra, txistorra eta tortilla goxoen dastaketa.
22:00etan Dantzaldia Fidelekin.

>> Irailak 10, larunbata

11:00etan Etxez-etxeko erronda, Irurtzungo trikitilariak alaituta.
17:30ean Herri kirolak.
19:30ean Korri harrapatuko zaitu eta!, Etxeberriko kiliki txikiak eta txistulariak.

20:00etan Zumba, Los Andusekin.
21:00etan Dantzaldia Los Andusekin.
21:30ean Zezensuzkoa.
22:00etan Herri-afaria.
00:00etan Dantzaldia Los Andusekin.
5:00etan Aulkien jokoa.

>> Irailak 11, igandea

9:00etan Gosaria.
11:00etan Mus txapelketa azkarra.
12:30ean Pilota partidak: Lizarraga-Etxeberria / Caballero-Irujo, Ortiz-Martiarena / Gainza-Markina, Berekoetxea-Lizarraga / Amezketta-Berastegi.
14:30ean Herri-bazkaria, Los Andusekin alaituta eta gazta jokoa.
16:00etan Dantzaldia Los Andusekin.
19:30ean Korri harrapatuko zaitu eta!, Etxeberriko kiliki txikiak eta txistulariak.
20:00etan Txokolata-jana.
20:30ean Txerrikumeen, gaztaren eta Martijaren kamixetaren zozketa.
22:00etan Hau pena nik!

HIRIBERRI

>> Irailak 9, ostirala

12:30ean Futbol partida.
14:00etan Herri argazkia.
14:30ean Herri bazkaria.
16:30ean Mus eta partxis txapelketak.
17:30ean Haurrendako jolasak eta kilikiak.
20:00etan Otamena.
20:30ean Dantzaldia Guezin taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30ean Dantzaldia Guezin taldearekin.
2:30ean Urdaiazpiko jaurtiketa.
4:30ean Gaupasa Txiteran.

>> Irailak 10, larunbata

12:00etan Puzgarriak.
12:30ean Bermuta txarangarekin.

14:30ean Koadrila arteko bazkaria.
16:30ean Puzgarriak.
17:00etan Erronda, trikitixaz alaituta.
20:00etan Otamena.
20:30ean Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30ean Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
2:30ean Txapela jaurtiketa.
4:30ean Gaupasa Txitera elkartearen.

>> Irailak 11, igandea

13:00etan Mariatxiak.
17:00etan Haurren antzezlan eta txokolata-jana.
18:00etan Dantzaldia Mendiberrirekin.
19:00etan Bingoa.
20:00etan Otamena.
22:00etan Zezensuzkoa.



Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

Olatz
ZORIONAK !!
Muxu pila loar, aita eta amaren partez.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Otsoportilloko omenaldia
- Altsasuko txupinazoa zeinek botako duen
- Urbasa-Andiaren egoeraz larreen batzordeko buruarekin

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

ETA JAIETAN... ZER?



JAIETAN ERRESPETUZ BIZI GARA



Raf Atxuri

Uda hondarretan

astekoa

Sanjoanetan argitan su, gauden luzaz alaitu; ekhigainetik aitzina gaugiro eta gara. Sanpedrotan muturrak bero haritzen plazan... Hala nioen maitea, orduok makurrenak dituk errepidera ateratzeko eta hala ere. Alajaina, Asiron Iruñeko alkatea da, ezba? Bada, aurreneko zezenketan presidente izan behar eta gustatzen

ez bazaizue alde egin Helsinkira egunotan, zer uste zenuten ba?

Esan faborez, esaidazu arren eta otoi, esan gezurra balitz ere Salvador Allendek ez zuela bere burua hil; mila trumoi beltz! Igerilekuko aurtengomegafoniaren ozena jasanezinagoa da aurreko urteetan baino, eta jasaezinagoa dena, ez dute Georgie Dann edo Rafaela Carra-

ren alerik jarri, Lakuntzako festetara joan beharko dugu, geroz.

Enelürzelü argi bat da nondis-tiran zilarrezko arraietan/ Jeikitzen zaikün goizankoeia egün soil edo alaitüen herrokan/ Enelürra olerki bat da iraztorra olalde eta soro berdeek alaiki idatzirik/ larrazkeneko ürreek apainturik ühaitzak lüzaz xuxurlatürrik...

Jean Pitrauren eta Bidadorren amets puskak osatze bidean ari. Taberna bat irabazpide segurua dela? Jai daukazue gero zeuen negozioetan, eta gainera ongi ikastazue garagardoek eta txanponjaleek kafeek baino diru gehiago ematen dute.

Bai, hain jator, atsegin eta gisa-koa ikusten nauzue orain, baina

arruntean ni ez naiz horrelakoa, jakina, zakar, oldarkor eta zeharraz izaten naiz/ gara, nola esan? Autoimolazioaren jarduna da gurean ohikoena, nire lagun psikologo batek esan zidan.

Eta laster Altsasuko jaiak, udariadio loriatsua egiten dioten egunak. Zuek aukeratu: Puro Relajoa edota Gatibu.

barrutik kanpora

“Balorizazio energetikoa” eta “ezabaketa”

Uda honetan Tolucako Unibertsitateko (Mexiko) Brisa Carrasco irakaslearen bisita jaso dugu. Berau, zementu-fabriketan errausketa burutzeko garatzen diren estrategiak eta jardura horren aurka herritarrek burutzen dituzten ekimenak ikertzeko programa batean ari da lanean. Bere hitzaldian agerian geratu zen zementugileek eta politikariek tokiaren eta bertako herritarren kontzientziario mailaren arabera, era desberdinak erabiltzen dituztela beti ere helburu bera lortzeko: zementu-fabriken labeak hondakinak desagertarazteko erabili, horrela errauskailuak ordezkatu eta hauek eskatzen duten gastua eta sortzen duten erantzuna saihestuz.

Mexikoko komunitateetan

proiektu hauen aurkako erantzun sozial handia dago. Han, munduko gizon aberatsenaren, Slim mexikarraren, multinazional handiei (FCCren jabea ere badena) ez zaie hemengo enpresa harrapakariek erabiltzen dituzten aitzakiekin eta eufemismoekin ibiltzea beharrezkoa egiten.

Hemen zementugileen inguruko Fundazioek errausketa estaltzeko terminologia berria, hau da “balorizazio energetikoa”, asmatu duten bitartean eta errausketaren aldeko lobbiek lehen normaltasun osoz “ezabaketa” deitzen zutenari ere izen bera jarri diotenean, horrela hondakinaren Europako hierarkian aurrerapauso bat emanez, han, hemen ez bezala, ez dute horrela jokatu beharrik, ez inoren kontzientzia politikorik zuri-

tu beharrik, ez herritarrek engainatu beharrik.

Bizitzak eta bizimoduak desegiten dituzten proiektu hauen aurka borrokatzen dutenek errepresio oso latza jasaten dute. Heriotza mehatxuak oso ohikoak dira eta zementugileek, zementu-fabrika batean hainbat lan oztopatzen zituzten maia komunitate bateko kideen artean hainbat hildako nola eragin zituzten kontatu zigun.

Nafarroako Hondakin Plana jendaurreko esposizioan dago egun. Bertan eta naturaltasun osoz, hondakin kopuru garrantzitsu batendako aukerarik onena “balorizazio energetikoa” dela esaten da. Ez diezagutela ziririk sartu!

3MB Plataforma

objektibo tik



objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere

kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren

zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan

publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

Historia egin duen irakasleari, eskerrik asko!

Maria Flores Bengoetxea, Altsasu BHiko irakasleen izenean

Sakanako ikasleek ikasturte berriari ekin diote aste honetan. Altsasu BHiko ikasleek, ordea, ez dute Franzisen ahotsa entzungo, lanean jardundako 40 urte emankorren ondoren agur esan

baitigu, ondo merezitako erretrata hartzeko.

Arakamak egindakoak historia liburu luzea idatz daiteke. Hona soilik hiru gako ekarriko ditugu:

Batetik, bere ezagutza sakon, zehatz eta kritikoa arte, historia eta geografian. Ezagutza hori bizi-bizirik ematea izan du gogoko, edozein une, artelan, etxe,

herriren aurrean mementoko jario etengabe mirengarrian. Urtetako ikerketa lan eskerga agerian uzten du oharkabean, une oro.

Bestetik, beti prest lan egiteko: irteerak prestatu, hitzaldiak antolatu, ikasleei eskolaz kanpoko denbora eskaini, tutore-lan fina egin, hezkuntza-baliabideak eskatu, garbitzaileen murrizketak

salatu, teknologia berrietara egokitu, ikasketa-bidaietara joan, Agenda 21, ikastetxeko korua... beti prest.

Azken gakoak, Sakanako ikasle eta hezkuntzarekiko izandako konpromiso serioa. Lanbide Heziketan, bere urte emankorrenetan, 70eko hezkuntza-korronte berriak Sakanako ikasleekin partekatatu zituen, aldarrikapen eta

protestekin batera. Ondoren, batxilergoarako pausoa eman zuen, euskaraz alfabetatu eta erreformara egokituz Mikel Donea Institutuan. Beti Sakanako gazteengan jakin-minaren eta euskaltzetasunaren hazia eriten aritua.

Horregatik, Sakanan egindako lan oparo eta eskergarengatik, eskerrik asko, Franzis!

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhua Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburordetza

LANGABEZIA GORA: Altsasuko enplegu bulegoan langabezia %5,05 hazi zen agorrian. 47 pertsona gehiago zeuden lan bila, guztira 977. 2015rekin alderatuta

%13,62 gutxiago da. Sakanako datua ezagutzeko Iruñeko Zabalguneko arakildar eta irurtzundarrak falta dira.

sakanerria >>

SAKANA

Gurdiak bueltan

Larunbatean, igandean eta astelehenean idi eta behi menditarrez tiratutako hiru gurdik Sakana zeharkatuko dute. San Juan baleontzia egiteko bidea eta alkitrana eramaten ari dira. Haiekin batera ibilbidea osatzea eta prestatutako egitarauaz gozatzea gonbidatu dute

Erdi Aroan baleontzi bat egiteko beharrezko material guztiak ez zeuden itsasertzeko olen ondoan. Lurraldearen barrualdetik eramaten ziren beharrezkoak. Hala, XVI. Mendeko San Juan baleontziaren errepika egiteko Sakana tik haritzak Pasaiara eramane zituzten. Baina bestelako materialak ere beharrezkoak dira, bidea edo alkitrana esaterako. Bimaterial horiek garai batean bezala garraiatzen ari dira, gurdian. Gurdi horiek Sakana zeharkatuko dute bihar eta astelehena bitartean eta haien ondoan, oinez, etapa zati bat egiteko gonbidapena luzatu digute sakandarroi.

Donostia 2016 Europako kultura hiriburutzaren programazio barruan dago Gurdi Bidea. Quintanar de la Sierrako (Burgos) Cabaña Real de Carreteros elkarteak modu tradizionalan egindako alkitrana eta bidea hiru gurdi ari dira garraiatzen. Haieki tiraka eskualdeko idi eta behi menditarrek ari dira. Agorriaren 31n abiatu ziren Burgostik eta 18 eguneko bidaiaren ondoren Pasaiara hilaren 17an iritsiko dira. Bihar, etzi eta etzidamu Sakanan izanen ditugu gurdi horiek.

Mikel Leoz, Albaola itsas kultur faktoriako kidea, "sakandar guztiak parte hartzea" gonbidatu ditu. "Egine diren etapa guztiak 16 eta 22 km artekoak direla, ez direla izugarri luzeak eta idien



Aurkezpenean Lekunberri, Larraun, Imotz eta Sakanako udal ordezkariak, Plazaola turismo partzuegoko, Sakanako Garapen Agentziako eta Nafarroako Gobernuako ordezkariak izan ziren.

abiaduran joaten da, nahiko mantso. Ez da ibiltari trebea izan beharrik. Botak jantzi eta Gurdi Bidearekin bat egin dezakete. Ongi etorriak izanen dira."

Balioa eman

Gurdi Bideak baleontzia egiteko materialak garraiatzeaz aparte, pasako den eskualdeetako turismo, arte eta kultura baliabideei balioa eman nahi die. Horregatik, Sakanako hainbat udalek, nork bere herrian, programazio osagarria prestatu dute egun hauetarako. Sakanako Garapen Agentzia udal antolatzaileen eta Albaola itsas kultur faktoriaren arteko bitartekari lanak egin ditu.

Aurkezpenaren egunean Aitor Larrazak, Irurtzungo alkateak, Sakanako erakundeen izenean hartu zuen hitza eta adierazi zuen ekimena "oso onuragarria" dela

ikusten dutela. "Batetik, Sakanako herri ohitura eta turismo arloa pixka batez agutzera ematen dituelako. Honekin batera, ondoko herrialdeekin komunikatzen dituzten bai bide bai galtzada sareei balioa ematen die." Balio hori Bernoako galtzadari bai Sakanako Donejakueko bideari aitortzen zaiola gaineratu zuen Larrazak. "bide horietan barnatzen historiaren berreskurapena dakarkigu burura, Sakanako bideetan zehar kostalderantz produktuak eramaten zireneko."

Larrazak gaineratu zuenez, "honelako ekimenekin dagoen elkarlanak erakundeen arteko erlazioak sendotzen ditu. Bai Albaolarekin bai Plazaolarekin izandako sinergiak baliagarriak izanen baitira." Azkenik, azpimarratu zuen Gurdi Bideak "irailaren 18an Irurtzunen egine den

azokaren filosofia bera duela: bertako produktua eta bertako gaudu arrazen babesa aurrera eramaten duelako."

Gonbitea

Mikel Leoz, Albaola itsas kultur faktoriako kidea, Gurdi Bidea posible egin duten erakunde eta eragile guztiei eskerrak emanez hasi zen. Azaldu zuenez, "guk beti sinistu dugu ondarea ez dela bitrina batean dagoen gauza bat, baizik eta ondareari bizia eman behar zaiola." Aurkezpenean bildutakoek horretan bat egiten zutela nabarmendu zuen. "Adibidez, Sakanan sekulako harrotasuna dago, eta nabaritzen da, herrien identitatea eta mantendu nahi dela; bai bertako produktuak ekoiztu, bai bertako basoak zaindu." Gurdi-Bidea horretarako "oso lanabes inportantea" izan ziteke-

ela gaineratu zuen.

Leozek esan zuenez, ekimenerekin "giza harremanak sendotzeko" asmoz zutela. Burgosko alkitran-egileekin eta gurdi zaleekin. Sakanako jende askorekin dagoeneko harremana badutela gaineratu zuen, "pila bat San Juan baleontzia ikusten egon da. Harreman horien bitartez, ausartuko nintzateke esaten San Juanen familia sortzen ari garela. Guretako hunkigarria da."

+www.guaixe.eus

Egitaraua

>> Irailak 10, larunbata

7:00etan Egilaztik abiatu.
9:45ean Ziordin harrera eta ongi etorria.
10:50ean Olaztin harrera eta ongi etorria plazan.
13:00etan Altsasura iritsiera.
16:30ean Harrera eta ongi etorria Foru plazan.
18:00etan Bisita Gidatua Dantzalekuko xendari.

>> Irailak 11, igandea

7:00etan Altsasutik abiatu.
9:15ean Bakaiku plazan harrera. Agustin Lopez de Zubiriak momentuan egindako ilarontzi bat Gurdi Bideari oparitutako zaiola. San Anton mandazain kofradiaren 300. urteurreneko DVD-a oparitu eta bere liburuan bisitaren berri jasota geldituko da.
10:15ean Etxarri Aranatz, Malkorramendin, harrera.
10:30ean Etxarri Aranazko plazan: zantzarriak, auzatea, zorri azoka eta Txalupak y carretas erakusketa.
11:15ean Arbizuko San Juan ermitan harrera: trikiritxa, txistorgileak, ...
13:30ean Uharte Arakilgo Erdi Aroko zubian harrera. Ondoren auzatea.
18:00etan Zamartzeko ermita erromanikoan bisita gidatua.

>> Irailak 12, astelehena

7:00etan Uharte Arakilatik abiatu.
10:00etan Santiago de Ixasperri ermitan harrera: txalaparta, hamaiketako eta bisita gidatua.
 Jarraian bisita Lacturalen (zehazteko).
11:30ean Irurtzungo plazan harrera.
18:00etan Izurdiagako Brun forjara bisita (zehazteko).

>> Irailak 13, asteartea

7:00etan Irurtzundik Lekunberriantz abiatuko da.

>> Bakaiku / Altsasu / Etxarri

Bakaikuko herri galdeketa galdera adosteko prozesua martxan da

Inkesta banatuko dute etxeetara eta jasotako erantzunekin, lastailaren 1eko Adosgunean galdera zehaztuko da

Bakaikuko Gure Esku Dagok herri galdeketa herrian garagarriaren 19an egitea aurreikusia zuen, baina hauteskunde orokorren errepikapenagatik atzeratzea erabaki zuen. Azkenik azaroaren 27an izanen da. 300 bat bakaikuarrek izanen dute botoa emateko eskubidea egun horretan. Galdeketa egitasmoa aurkeztu zuenean Bakaikuko Gure Esku Dagokoek azaldu zuten, "gure hitzak/haitzak hitz-

jokoaren bidez, gure herriaren nortasunarekin lotzen dugu galdeketa" egin nahi dute, "haitz horien gerizpea iritzi anitzen topaleku bilakatuz". Orain aitortu dutenez, "herri kontsulta hau erronka handia da guretat eta, horregatik, galdeketa elkargune anitz, garden, parte-hartzaile eta zabala izatea nahi dugu".

Asmo hori aurrera eramateko galdeketa galdera bakaikuarrek beraiek erabakitzea nahi dute. Hainbat bide erabiliko dituzte hori lortzeko. Hasteko, bakaikuar guztiek inkesta bat duen gutun bana jasoko du. Gure Esku Dagotik galderari erantzuteko baita galdera bera proposatzeko gonbidapena egin diete.

+www.guaixe.eus



Auzo-konpostagailua hautsita

Altsasuko Otaiko auzokonpostagailua erabiltzen duten 30 etxeetako altsasuarrek haserre daude, materia organikoa haiek nahi bezala kudeatzen uzten ez dielako bakarren batek (edo batzuk). Larunbat gauean konpost iraultzeko eta oxigenoa sartzeko iraul-gailua lapurtu dute, bigarrenez. Horretarako, auzokonposta-

gailua osatzen duten oholetako bat eramandute. Biastetan bigarren aldia da iraul-gailua lapurtu dutena. Aurreneko aldian, gainera, tresnarekin batera materia egituratzailea botatzeko pala eramane zuten.

Errefuxiatuendako material bilketa Etxarrira zabaldu da

Lehendik Altsasuko Frontoi zeharbidearen 14an udalak duen bajaran jasotzen zen. Orain Etxarri Aranazko udaletxeako estalopeko eskuineko atean ere jasoko da

Garilaren 17az geroztik AHNA elkarteak, Ayuda Humanitaria Navarra en Acción, errefuxiatuei zuzendutako material bilketa kanpainamartxa zuen Altsasun. Hasieran egune-

ro jasotzen bazen ere ordutegia murriztea erabaki du elkarteak eta, Altsasun, astelehen eta ostiraletan jasotzen dute materiala, 11:00etatik 14:00etara.

Aste honetatik aurrera AHNAko kideak Etxarri Aranazko udaletxe-ko estalopeko eskuineko atarian egonen dira elkarteak kideak materiala biltzen. Astearte eta ostiraletan izanen da, 17:00etatik 19:00etara. AHNAko kideak euren esker ona azaldu nahi izan diete 10 urtez jantzen banaketan ari diren boluntario etxarriarrei, "errefuxiatuendako material ugari eman digutelako." Elkarteak aurreratutako materialak, lastail hasierarako materialak betetako kamioia Calais (Frantzia) errefuxiatu eremura bidaltzeko asmoa dute. +www.guaixe.eus

SAKANA



ETB 1 26. kanalean ikusgai izanen da

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, Euskal Telebistaren aurreneko kanala Lurrezko Telebista Digitalaren (LTD) bidez Nafarroa guztian ikusteko aukera izanen da. Hilaren 22tik aurrera izanen da.

Vaughan Radio SL enpresak agorrilean zuen LTD kanalariko aukera. Erkidegoko multiplexean gelditutako hutsunea beteko du, beraz, ETB1ek.

Arakil / Irurtzun

Ederbidea, bizikleta lotura



Baionan ospatutako lan bilera.

Iruña, Donostia eta Lapurdiko hiriburua bizikletaz ibiltzeko bideen bitartez elkartuko dituen egitasmoak Ederbidea izena du (238 km-ko sarea). Lotura hori Arakil eta Irurtzunen barna egingen da, Plazaolako bide berdearen bidez. Nafarroa, Gipuzkoa eta Pirinio Atlantikoetako ordezkariak Baionan 2016-2019 eperako bizikleta gaineko garraio iraunkorreko proiektua abian jartzeko ekitaldian elkartu ziren asteazkenean. Hiru urteko lanari hasiera eman zioten. Egitasmoak 9,4 milioi euroko inbertsioa du.

Ederbidea jarduteko lau ardatz proposatzen ditu: mugaz gaindiko Plan Ziklista bat prestatzea; Baiona-Donostia-Iruña batuko dituen ibilbidea osatzea eta txirrindularientzat seguruagoa izatea; eguneroko bizitzan bizikletaren erabileran aurrera egitea eta bizikletaren erabilera sustatzea, sentsibilizazio eta prestakuntzako ekintzen bidez. Ederbidea Eurovelo bizikleta ibilbide sarearen barruan dago, Norvegia eta Portugalgo Algarve lotzen dituen. Circuldouceko parte ere bada, Pirinioetako mugaz gaindi-

ko ibilbidea.

Nafarroa

Plazaolako bide berdean oraindik ere egitekoak daude: Bi Haizpeko pasabidea egokituko da (3 bat km); Irurtzun eta Sarasa arteko ministerioaren erabakiaren zain dago. Bost bazkidek sustatu dute Ederbidea Nafarroan. Nafarroako Gobernuarekin batera, Imotzeko Udala; Cederna Garalur; Plazaola turismo partzuergoa; eta Baztan Bidasoa Turismo Elkargoa. Guztira, 2,72 milioi inbertitutako dute Nafarroako zatia egokitzen eta sustatzen. Zehazki, Nafarroako Gobernuak 2,4 milioi jarriko ditu, eta handik 1,9 azpiegiturretan eta obretan erabiliko dira zuzenean (azterketak, proiektuak, erosketak eta desjabetzeak, Nekazaritza Ministerioak Irurtzun-Iruña artean obrak egin ditzen). 1 milioi inguru Bidasoa eta Plazaolako bideak lotzeko erabiliko da eta 860.000€ Plazaolako biderako (geltokiak, proiektuak idazteko, desjabetzeak). Cederna Garalur-ek eta Plazaolako Partzuergoak (Arakilgo Udala kide da), bakoitzak, 56.825 euro jarriko ditu.

Festak Sakanan

Ziordia

Egitaraua

Irailak 9, ostirala. Haurren eguna

11:00etan Hamaiketako enparantzan.
11:30etik 13:30era Haurrendako jolasak. Zaki-jolasak eta betiko herri jolasak, enparantzan.
14:30ean Haurren bazkaria, elkartean.
17:00etatik 19:00etara Haurrendako jolasak. Puzgarrriak, eko-ziclo zirkuitu erraldoia eta Ludibois jolasak.
19:00etan Japoniar bonbak eta buruhandiak.
19:00etatik 20:00etara Patata tortilla txapelketa herrikoa. Epaimahaia herriko sukaldariak izango dira.
20:00etan Ardo eta Eginoko Artzaia gazta dastaketa.
20:00etatik 22:00etara Atarrabiako Batukada.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 4:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

Irailak 10, larunbata

11:00etan Hamaiketako enparantzan.
11:00etan Gurdi bideari harrera enparantzan.
13:00etatik 14:00etara Dantzari txikiak. Euskal dantzak enparantzan.
13:30etik 14:30era Vermut herrikoa.
14:30ean Emakumeen bazkaria, elkartean.
17:00etatik 18:30era Txirrindularitza proba, Burunda txirrindularitzaren eskutik.
19:00etan Japoniar bonbak eta

buruhandiak.

20:00etan Ardo eta Eginoko Artzaia gazta dastaketa.

20:00etatik 22:00etara Haize Berriak banda Arrasateko txistulariekin, enparantzan.

22:00etan Zezensuzkoa.

00:30etik 2:30era Rock Kalean.

1:30etik 5:00etara Dantzaldia Trikitens taldearekin.

Irailak 11, domeka

10:30etik 11:30era Sakanako trikitilariak.

11:00etan Hamaiketako enparantzan.

13:00etatik 14:00etara Erkudengo Ama abesbatzaren kontzertua.

13:00etatik 14:00etara Apar festa.

13:30etik 14:30era Vermut herrikoa.

17:00etatik 18:30era Bigantxak, txipudian.

19:00etan Japoniar bonbak eta buruhandiak.

19:00etatik 20:30era Futbol 8 hiruko txapelketa, txipudian. Ziordia, Sutegi eta Altsasu kirol elkartea.

20:30ean Ardo eta Eginoko Artzaia gazta dastaketa.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Txiki Band taldearekin.

22:00etan Zezensuzkoa.

22:00etan Presoen aldeko afaria.

23:30etik 1:00era Dantzaldia Txiki Band taldearekin eta Hau pena nik!



Txupinazoan omendutakoak.

Ihabar



Ihabarren bukatutako festek oroimenenerako irudiak utzi dituzte.

Festetako argazki galeriak: www.guaixe.eus-en

13 etxajuk piztu zuten Ziordiko festa

1936ko estatu kolpearen ondoren hildakoak gogoan izan zituzten Ziordiko festetako txupinazoan. Patxi Bengoetxea alkateak azaldu zuenez, ekitaldiak "balio dezala zauriak ixteko, baldin badaude, eta ahaztu ez gaitezen." Lau dantzariak hildakoen senideei aureskua dantzatu zieten eta ondoren, banaka-banaka, 13 etxaju piztu zituzten. Udaleko kideek aurreratu zuten lastaila memoriari eskainiko diotela. Bestalde, hildakoak gogoan dituzten kamixetak ere salgai daude. Bizkarrean herri sarreran dagoen enbor zaharraren irudia du, gainean 13 zenbakia eta azpian 1936-2016 urteak ageri dira, paparrean, berriz, Ziordiko armarrria du.

Aspaldiko partez Ziordiko txupinazoa 19:00etan piztu da berriro. "Festak antolatu dituen batzordearen kontua izan da, garai batean hala zen eta berreskuratu nahi izan dute", argitu digu Olatz Irizar zinegotziak. Errekarteko sei bazkide arduratzen dira urtero festak antolatzeaz; udalak dirua jartzen du. Udal egoitza elkarte gisa erabiltzearen truke 80 hamarkadan adostutakoa betetzen da horrela.



Hamahiruak

Francisco San Roman Otsoa, Domingo San Roman Otsoa, Juan Agirre Pozueta, Pablo Ramirez Sanchez, Epifanio Gonzalez Villar, Ramon Goikoetxea Etxeberria, Celestino Otsoa Martinez, Fernando Agirre Agirre, Pedro Agirre Pozueta, Gregorio Otsoa Martinez, Marcelino Zabaleta Goia, Martin Elso Latasa eta Juan Migel Otsoa Beinaran. Haietako lau fusilatuek zuzuten, bat kartzelan hil zen eta zortzi fronte-an hil ziren.

Zapia



Joan den urtean haur bakarra jaio zen Ziordin, Aner Fuste Conde. Txupinazoaren ondoren zapia jarri zioten.

SAKANA



Otsoportillo, memoria topaleku

Larraitx Amadoz Lazkano

Zortzi hamarkada pasa dira Espainiako Gerra Zibilak eztanda egin zuenetik. Hiru mila pertsonatik gora erail ziren Nafarroan, oraindik ere askok ez dakite non diren beren senitartekoak. Sarraski horretako memoria gogoratzen duten omenaldiak geroz eta gehiago dira, horietako bat Otsoportillo. Omenaldi hau ez da berria, Urbasako leze sakon horren inguruan 1980 urtean lehen aldiz bildu ziren senide eta ezagunak. Harez geroztik urtero Etxarriko Udala eta eraildakoen senideak aritu dira antolaketa lanetan. Aurten-

go garagarrilean sei gorpu atera zituzten lezetik eta identifikazio lanetan dihardute.

Etxarri Gogoan lan taldeak eta Etxarri Aranazko Udalak antolatu dute aurtengo omenaldia. Baina beste 9 udalen laguntza izanen dute. Izan ere, etorkizuneko ekitaldiak hamarren artean elkarlanean eginen dira. Hori zehazteko udalak hitzarmena lantzen ari dira, baina dagoeneko igandeko ekitaldiaren aurkezpenean elkarrekin agertu ziren Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia, eta Ziordia herriak.

Omenaldia

Gertutik ikusita aho txikia dauka Otsoportilloko lezeak, baina sakona omen da. Duela 80 urte bertan isilarazi zituztenen ondorengo musikari eta hitzak ozen entzun ziren igandean. Ehundaka pertsona bildu ziren bertan, hiritarrak, herritarrak, senideak, Nafarroako Gobernu Ana Ollokontseilaria, Ainhua Aznarez, Nafarroako Parlamentuko presidentea, Unai Hualde presidenteordea, eta David Anaut EH Bilduko parlamentaria, baita udaletakoak ere. Omenaldiaren hasieran Eneka Maizek, Etxarri Aranazko

alkateak hartu zuen hitza. Omenaldi horren garrantzia azpimarratu zuen. Izan ere, aurtengoa Nafarroako Gobernuaren enkarguz Aranzadi Zientzia Elkarteak gorpuen exhumazioa egin du. Memoriaren inguruan egin behar den lanaz ohartarazi behar dugula adierazi zuen, eta elkarlanean aurrerapausoak emateko betebeharrak mintzatu zen. Maizen ustez 80 urte hauetan oso gutxi egin da memoriaren alde, eta poliki-poliki egia, justizia eta erreparazioan urratsak eman behar dira.

Sahats Karasatorreren bertsoen eskutik jarraitu zuen omenaldiak. Berri Txarrak Maravillas abestiak dioen bezala, Norbaitek oroitu du etorkizunean, ahanzturaren zingira honetan ito dituztenak, abesti berriren batean, zuhaitz zaharren azaletan. Abesti horren hitzak errealitate bihurtu ziren, Lur Larraza eta Luisillo Kintana etxarriarren bidez. Jarraian Castillo Suarezek omenaldirako eginiko Memoria olerkia irakurri zuen eta hori guztia gertatzen zen bitartean Iker Uribe lakuntzarrak horma irudi bat marraztu zuen.

+www.guaixe.eus

Musika



Musikari tarte eskaini zioten berriz eta modu oso berezian, izan ere, Otsoportillon erail zituztenen senideek musika emanaldia eman zuten. Duela hilabete batzuk topo egin zuten hainbat senidek Otsoportilloko lezean beren familiakoen arrastoan bila. Horietako bi, Amaia Razkin Etxarri Aranazko biolin jolea eta Imanol Ubeda, Bide Ertzean taldekidea izan ziren. Igandean, moldatutako bi abesti bidez haien senideak oroitu nahi izan zituzten. Etorkizuna dantza taldeak ondoren aurreratu dantza zuten eta lore eskaintza egin zuten Jose Ramon Andak egindako monolitoan. Honen ondotik auzate bat izan zen Urbasako leku sinboliko horretan. Bukatzeko, El Drogas y la (des) memoria Band taldea izan zen omenaldian parte hartzen.

Turismo eragileendako trebakuntza

Sakanako turismo sektoreko profesionalen zuzendutako prestakuntza horrek hiru asteartetan egingen da (irailak 20 eta 27 eta lastailak 4), 9:00etatik 13:30era.

Sakanako Garapen Agentziak eta Bidelagun turismo elkarteak elkarlanean Ezagutu gure ingurunea ikastaroa antolatu dute. Ibilbideen bidez Sakanako natura baliabideak ezagutzeko aukera izanen dute parte-hartzaileek. Zehazki, turismo aldetik interesgarri diren ondarearen baliabide eta elementuetan oinarrituta, ingurunea interpretatzen lagunduko duten informazio eta jarraibideak emanen dira. Aldi berean, turismo jasagarri zein naturaren babes-sustatzeko oinarritzko komunikazio-estrategiak azalduko dira. Aralar mendia, Urbasa-Andia natur parkea, hariztiak eta seinaleztatutako hainbat xenda bisitatuko dira.

Haien bidez, besteak beste,



Turismo aktiboko ikastaroan adi.

Sakanako turismo profesionalen natur baliabide berri jasoko dute bisitariei euren bisita planifikatzen lagundu ahal izateko. Horretarako, beharrezko informazio praktikoa interesgarria eta bezeroendako gomendioak emanen dira. Gorka Gorospe ornitologoa eta natur gida eta Daniel Torrente natur gida izanen dira irakasleak.

Izen ematea

Irailaren 15era arte, furbite@sakanagaratzen.com e-postan edo 948 117 344 telefono zenbakian. 20 euro bazkideak, 35 ez direnak. Plaza mugatuak.

Altsasu

Sozarretan eraildakoei omenaldia

Larunbatean, 17:00etan, Altsasuko Sozarretan, NA-1000 errepideko 5. km-an

N-1 errepide zahararen azpian hiru sakandarren gorpuak daude: Claudio Doroteo Dieguez Loza etxarriarra, Miguel Mikelez olaztiarra eta ziordiar ezegun bat. Haien hil zituztela 80 urte beteko dira asteazkenean; bide bazterrean erail zituzten 1936ko irailaren 14an. Harrobiak pasata Gipuzkoarako norabidean zegoen paraje horretan errepide azabalduegin zuten eta gorpuak azpian gelditu ziren.

Hildakoak

Claudio Doroteo Dieguez Loza 1904ko lastailaren 30ean jaio zen San Asension (Errioxa). Renfeko sugina zen eta CNTko kidea. Francisca Jaka Mendiolaekin ezkondu zen. Atxilotu zuten gau berean erail zuten, 32 urte zituela, alarguna eta lau seme-alaba utziz.

Miguel Mikelez Agirre 1901eko apirilaren 29an jaio zen, Olatzagutian, Sebastiana eta Beremundoren semea. Ezkongabea, langilea, PSOEko kidea zen. 31 urte zituela hil zuten.

SAKANA

Errepresaliatutako irakasleei omenaldia

Nafarroako Gobernuak 36ko kolpe militarren ondoren "bere lana betetzeagatik frankismoaren erre-

presioa jasan zuten 300 irakasle" omenduko ditu, sakandarrak edo bertan lan egin zutenak barne. Bihar izanen da, 11:00etan, Iruñeko San Jose plazan egingen den ekitaldian.

Altsasu

Haur eskolako lanak bi aste barru hasiko dira

Navarro Villoslada eraikina zena udal haur eskola hartzeko lanak bi aste barru hasiko dira. Horixe jakinarazi digu Javier Olló Martinez alkateak. Erabakia ostiralean hartu zuen udalak eta heldu den astean Arbeloa eraikuntza enpresarekin kontratua sinatu du. Lanek abenduko bigarren hama-

bostaldirako despeditu beharko ditu. Aurreikusitako lanen herena eginga dago, baina lanak 2011tik geldi daude.

Lanen truke 424.000 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu enpresak. Haur eskolen lanen aurrekontua ordaintzeko Altsasuko udalak moduluprefabrikatuen sutearen ondoren ase-

guruak emandako diruaren 285.270 euro ere bideratuko dira. Baita Nafarroako Gobernuak emandako 250.000 euroko diru-laguntza ere.

Bestalde, alkateak azaldu digunez, udal aurrekontuetan jasoak zeuden Zelandi eskolaren komun berritzea heldu den astean despedituko da. Lanak, azkenik, Gipuzkoako enpresa batek egin ditu, bertakoei prozedura negoziatu bidez eskaini eta hartu ez dutelako. 29.000 euroko inbertsioa izan da.



Navarro Villoslada zen eraikinak hartuko du haur eskola.

Non erabili

PINPILINPAUSA

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

TEXARTU

IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER

OLAZTI

Menu bereziarekin txupittoa doan.

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktua doan

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ % 20ko deskontua kontsultan.

BASOMUTUR

ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Karta menuan, kopa doan.

www.guaixe.eus-en
zerrenda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

SAKANA

Urbasa-Andia, eguzkiak erreta

“Badaramagu ia bi hilabete fundamenduzko euririk egin gabe. Eta egunetik egunera dena lehortzen dela nabari da”. Javier Saez de Jauregiren, Artzako artzainaren eta Urbasa-Andiako Larreen Batzordeko presidentearen hitzak dira. Izan ere, mendiko sarrietako belarra horituta, erreta, dago. Hainbat pagaditan orbela pilatzen hasi da.

“Dena lehortu da eta, batez ere, lur gutxi dagoen tokietan asko nabaritu da; euria laister egiten badu ere.” Saez de Jauregik joan den urteko adibidea jarri digu: “ez zen guztiz lehortu. Lehortzen ez den bitartean belarra birsortu egiten da. Hiltzean belarra hazitik sortu behar da. Eta nahiz eta hurrengo egunetan eguraldi hobea egin oso belar gutxi izanen dugu.” Argitu digunez, sarrietan belarririk ez badago ere, “inguruan dago, pixka bat hezeago dagoen pagoen eta elordien azpian. Itzal pixka bat dagoen tokietan dago belarra, lehorra, baina belarra.”

Uraz galdetuta, Saez de Jauregik esan digunez, Urbasa-Andian urpuntuen “sarenahiko ona dugu. Zenbait lekutan dute urrik. Gehienetan, oraindik, ura dago, zorionez.” Gogoratu du Larreen Batzordea “urteak eta urteak daramatzala administrazioarekin lan egiten”.



Lehorretan ezin egona.

Aziendaz

Mendian belar “oso-oso gutxi” dagoenez, abeltzainak “negurako duten pentsua abereei ematen ari da.” Larreen Batzordeko buruak azaldu digunez, “ernaldu gabe dauden ardi eta behorrak agian eutsiko diote, baina, bestela, zerbait eman behar zaie.”

Abeltzainek “behi gehienak menditik herrietara eta larreetara” jaitsi dituztela jakinarazi digu Saez de Jauregik. Behorrei dago kienez, “ez da berdin hazten ari direnak, pottokin daudenak, edo antzu gelditu direnak. Zenbat eta potto gazteagoa izan behorrak esne gehiago eman behar du. Beraz, elikagai gehiago behar

ditu.” Ardiekin gauza bera gertatzen dela azaldu digu: “goiz, udazkenean erdituko dutenak ongi jan behar dute eta ongi egon behar dute. Horiei elikadura osagarria eman behar zaie.”

Abereak menditik jaitea merezi ote duen galdetuta, Saez de Jauregik bi gai aipatu dizkigu: “bategatik, oraindik irailan gaude. Aste bat barru euria egingen balu, egoera pixka bat konpondu liteke. Bestetik, fagatxi asko dago. Zenbait lekutan hori ere aurreratzen ari da, pagoak hostoak eta haziak botatzen ari dira. Zerbait galdu bada ere, fagatxia hor dago. Asko egonen da eta hori oso ona da, ardiendako batez ere.”

>> Irurtzun



Arian-eko 14 langileek segitu egingen dute

Konkurto-administratzaileak enpresako 82 langile hilabete honetan kaleratzea eskatu du

“Estatuko eraikuntzako hitzarmenean jasoa dago enpresaren batixte-

an azpiegituren mantenuan lan egiten duten langileak subrogatuak izanen direla. Hori da Arianendako Irurtzunen lan egiten duten 14 langileen kasua”. Hala jakinarazi digute ELA sindikatutik. Arianek autobien mantenuerako Nafarroako Gobernuaren lehiaketa eskuratu zuen. “Lau urterako adjudikazioa da, eta gutxi gorabehera erdia falta da”, zehaztu digute sindikatutik.

Konkurto-administratzaileak erabakiko du Irurtzongo 14 langileen

etorkizunaz. ELAtik azaldu diguteenez, “enpresa bat ixteak luze jo dezakeenez, egoki jo dezake itxi bitartean enpresan mantentzea, hura soldatak ordaintzeko gai den bitartean. Baina ixtea erabakitzen badu, Nafarroako Gobernuaren Sustapen Departamentuari jakinarazi beharko dio”. Hark lehiaketan bigarren postu angeliditu zen enpresari lanak eman edo autobien mantenuerako lehiaketa berri bat deitzea, bi aukeretatik zein den egokia ezin izan dugu argitu.

>> Etxarri Aranatz

Guardia Zibila AEMren manifestazioaren kontra

Larunbatean, 20 eguneko gose grebaren ondoren, Joxean Kortadik protestaldia utzi zuen. Fernando Lizeagak segitzen du

Debekatuta zegoela eta ezin zela manifestaziorik egin. Horixe esan zien Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren kontrako Mugimenduko kideei (AEM) Guardia Zibilaren buruak larunbatean. 19:00ak ziren eta Guardia Zibilak kide ugariekin plaza hartua zuen. Etxarriarako bidean ere kontrolak jarri zituzten eta haietako batean, Altsasun, Bilbotik zetorren autobusa ordu erdiz geldirik izan zuten. Arbizun ere ibilgailuak geldirik izan zituzten. Deialdiak batutako pertsonak, batzarrean, manifestazioa egitea erabaki zuten. Plazatik ikastola zaharreraino joan ziren, 20:00etan. Bidean honako leloak oihukatuko



Debekuaren hitzetan gertatutako istiluak.

zituzten: borroka da, bide bakarra; ez gaituzue geldituko eta presoak kalera, amnistia osoa. Gose grebalaria agurtu eta Eusko Gudariak abestu zuten.

Horren ondoren Guardia Zibilaren karga iritsi zen. Ke poteak

eta pilotak bota eta manifestariak sakanabatu zituzten. Haietako batzuk, aurpegia estalita, beira edukiontzia irauli eta botilak jaurti zituzten Guardia Zibilei. Tentsioa 21:30erako baretu zen. Guardia Zibilak plaza inguratzen segi-

Nafarroako Gobernuari

Foru administrazioarekiko harremanetan, bi gai aipatu dizkigu Larreen Batzordeko buruak. “Bata, bazka da. Ezindugu gehiegi egin. Larrezalera handitu daiteke, garbiketarako eginez. Dena sasiz betetzen ari da. Gero eta karga gutxiago dago. Suarekin arriskuak handitzen dira.” Bigarrena, uraren gaia da. “Gobernuaren ardura da eta gu, haiekin batera, saiatzen ari gara, baina zenbait lekutan urrik gabe gaude eta hori konpondu behar da. Horretan ari gara.” Saez de Jauregik zehaztu digunez, “zenbait tokitan ura dago baina hura gordetzeko tokia oso txikia da, beraz, aurrean lehortu da.” Zenbait balza handitu edota impermeabilizatu behar direla nabarmendu digu, “bestela ura bukatzen da”. Urbasa-Andian ur puntuak jartzeko programa bat dute eta “poliki-poliki gauzak egiten ari dira. Gure ustez azkarra egin beharko litzateke, baina ez dago dirurik”. Larreen Batzordeak eskaera bat baino gehiago egin ditu. Haietako bat da urrik ez duten Urbasa-Andiako tokiak legegintzaldi honetan “konpondu” egin behar direla, “horretan ari gara.”

+www.guaixe.eus

Kirola >>

PILOTA

FESTETAN PILOTA ETXEBERRIN: Igandean, 12:30ean pilota jaialdia izanen da: Lizarraga eta Etxeberria Caballeroren eta Irujoren

kontra; Ortiz eta Martiarena Gainza eta Markinaren aurka eta Berekoetxea eta Lizarraga Amezketaren eta Berastegiren kontra.

Arku jaurtiketa



Jose Luis Iriarte zilarrezkoa European

Esloveniako Mokrice Catezen jokatu berri da Europako Arku Jaurtiketa Txapelketa, 3D arkuarekin, long bow modalitatean. Bertan lehiatu da Hiriberriko Jose Luis Iriarte arku jaurtitzaila, Espainiako selekzioarekin. Iriartek zilarrezkodominallortu zuen taldekako txapelketan, David Garcia kataluniarrekin eta Joaquin Merida andaluziarrekin taldea osatuta. Zilarrezko zaporegiaz utzi zien hirurei, txapelkunak, Italiak, soilik puntu bat atera baitzien.

Mendi lasterketak



Korrikalariak, indar betean. ARLEGI

Uharte Arakil-Berriain Km Bertikalerako izena ematea zabalik

Irailaren 18an jokatu da, eta irailaren 12ko 23:59ra arte eman daiteke izena

Astebete pasa geratzen da Uharte Arakil-Berriain Km Bertikalaren jokatzeko. Irailaren 18an izango da, igandearekin, 10:00etatik aurrera. Uharte Arakildik abiatuta (471 m) Berriainera (1.494 m) igotzea da helburua (5 km eta 1.023 m desnibel positiboa).

www.uhartearakil-berriain.com izena emateko, irailaren 12ko 23:59ak arte. Momentuz 101 korrikalari eman dute izena.

KATARAIN HIRUGARRENA USURBEN ETA KAKUTEN

Asteburu korrikari eman du Beñat Katarainek. Larunbatean Azkoitiko I. Izerpin Kakutea Gaueko Ixorie jokatu zuen. Kakute mendira igotzea zen erronka, gabez. Iban Murua izan zen azkarrena (32:02) eta lakuntzarra hirugarrena (36:08). Hurrengo egunean Beasainera hurbildu zen Katarain, XIII. Usurbe Igoeran parte hartzeko. Mikel Beunzak egin zuen denbora onena (22:23), eta Beñat Katarainek postua errepikatu zuen, hirugarrena izan baitzen (23:34).

Pilota

Altsasun bigarren finalistak bila

47. Otadiko Kristo Deuna Torneoko bigarren finalerdia jokatu da bihar, 22:00etan, Burunda pilotalekuan. Ansa eta Gorritik bikotea osatuko dute

Aurreko larunbatean 47. Otadiko Kristo Deuna Torneoko lehen finalerdia erabaki zen eta bihar bigarren finalerdia izanen da jokoan. Aurreko asteko ikuskizun bikaina errepikatzeko asmoarekin aterako dira kantzara pilotariak.

22 urtez azpikoan lau t'erdian Zugarralde klubeko Olano eta Bortzirriak taldeko Elizalde ariko dira nor baina nor. Irabazleak Espinal (Uharte Iruñea) izango du aurkari irailaren 18ko finalean. Eta maila nagusian, binakakoan, puntako partida jokatu da. Batetik, Oberean dabilen Ansa altsasuarra eta Erreka klubeko Jon Gorriti uhartearra izango ditugu, sakandar

47. Otadiko Kristo Deuna Torneoko bigarren finalerdia

Bihar, larunbatean, 22:00etan, Burunda pilotalekuan

Gazteen partida: Olaetxea-Lazkoz / Nazabal-Ganboa

Lau t'erdian: Olano (Zugarralde) / Elizalde (Bortzirriak)

Binaka: Ansa (Oberena)-Gorriti (Erreka) / Arrieta (Hernani)-Landiribar (Buruzgain)

47. Otadiko Kristo Deuna Torneoa. Lehen finalerdiko emaitzak

Eskolen partida: Mentxaka-Goikoetxea 7 / Otxoa-Petriati 22

Lau t'erdian: Espinal (Huarte) 18 / Anso (Zugarralde) 11

Binaka: Iriarte (Buruzgain)-Eskiroz (Zugarralde) 22 / Ongay (Iruztzun)-Martinez (Bortzirriak) 14

Lehen finalerdia utzitakoa




Aurreko larunbatean, 22 urtez azpiko Uharte Iruñeko Espinalak eta Zugarraldeko Anso ikuskizun polita eskaini zuten ordu erdi iraun zuen lau t'erdiko partida onean. Erritmo bizia izan zuen partidak 10. tantora arte, baina hortik aurrera Espinalak hartu zuen agintea eta bukaerara arte nagusitu zen, mota guztietako jokaldiak eginez. Maila nagusian, Buruzgaingo Iriartek Peñas ordezkatu zuen Zugarraldeko Eskiroz izan zuen bidaide Iruztzun klubean dabilen Ongay satrustegiarraren eta Bortzirriak taldeko Martinezen kontra aritzeko. Oso partida entretenigarria izan zen, pilotazaleen gustukoa, lehen zatia bereziki. Ongay eta Martinez hasi ziren aurreratzen eta 10 eta 13ko aldea izan zuten. Baina Eskirozek agintea hartu zuen eta Iriarteren laguntza bikainarekin 22raino jo zuten. Satrustegiarrak ez zuen erremateetan asmatu eta sarritan azkarregi aritu zen, presa gehiegirik. Tamalez, finaletik kanpo geratu da. Argazkia: Guzman.

bikote sendoa. Bestetik, Hernani klubeko Arrietak eta Buruzgain klubeko Landiribarrek osatutako

bikotea. Irabazleek Iriarte eta Eskiroz dituzte zain finalean. Easakandarrak egiten duten aurrera.

>>

Festetarako primerako menua: Ezkurdia-Zabaleta vs Iribarria-X



Zabaletak eta Ezkurdiak atzera ere bikotea osatuko dute Altsasun.

Altsasuko festetan, irailaren 15ean, ostegunean, 18:00etan, Burunda pilotalekuan. Aspek oraindik ez du zehaztu nor izango den Zubietaren ordezkaria

Altsasuko festak, beste behin, puntako pilotarien bilgune izango dira. Egun puntan dauden pilotari sakandarrak etxean ikusteko aukera izango dugu hurrengo ostegunean, Altsasuko festetako bigarren egunean, 18:00etan, Burunda pilotalekuan.

Jaialdia zabaltzen duen partidari Julen Martija lanean ikusteko aukera izango dugu. Eta partida nagusian Buruz Buruko Iribarria txapelkunarekin bikotea osatzeko zen Aitor Zubieta, baina atzelari etxarriarrak belauneko arazoak ez ditu gainditu eta Aspek oraindik ez du zehaztu nor

hartuko duen bere tokia. Beste bikotea Joseba Ezkurdiak eta puripurian dagoen Jose Javier Zabaletak osatuko dute. Ikuskizun aparta, pilotazaleek gozatu ederra hartzeko modukoa.

Sarrerak

Aurretik Asperen 661 259 009 telefonoan (Olaia). Egunean bertan Burundako txarteldegian.

Altsasuko jaialdia

Irailaren 15ean, ostegunean, 18:00etan, Burundan Mendizabal III.a-Martija / Ugaldede-Irusta Iribarria-X / Ezkurdia-Zabaleta



Zabaleta eta Altuna, garaile Donostian.

Donostia Hiria bai, baina Lekeitio ez

Orain arte pilotutako torneoei -Gasteiz, Bilbo eta Donostia Hiria, aurreko ostegunean, Altuna III. arekin batera -Lekeitiokoa ezin izan die gehitu Jose Javier Zabaletak. Etxarreno atzelaria Iker Iribarriarekin aritu zen asteleheneko finalean, Altuna III.a eta Rezusta arerio zituztela.

Hasieran parez pare aritu ziren bi bikoak, eta zarpina, zortzina eta hamarna berdindu zuten. Baina hortik aurrera Altuna III.a eta Rezusta aldea ateratzen hasi ziren. Atzeko koadroetan Zabaleta ez zebilen ohi duen bezain ongi. Hainbat pilota galdu zituen eta egoera bikain probestu zuen Jokin Altunak, mota guztietako tantoak egiteko. Iribarriak ere ez zuen ohiko distira. Azkenean 14 eta 22 galdu zuten gorriek. **Zabaleta eta Ezkurdia Logroñoiko San Mateotan** Irailaren 18an hasiko da udako azken torneo, Logroño. Aspek eta Asegareko pilotariak nahastuta osatu dira bikoteak. Zabaletak Victorrekin osatuko du bikoia eta Ezkurdiak Rezustarekin.

Botxa



Txapelketako finalistak. IRATXO

Julen Iribarren eta Iñaki Juango Haur Botxa Txapelketako irabazleak

8 talde lehiatu dira txikiengan botxa sustatzeko antolatzen den txapelketan

Agorriaren 25ean abiatu zen, Irurtzun, Haurren Botxa Txapelketa. Urtero antolatzen dute txapelketa Iratxo elkarteak eta Aizpea Irurtzunge Euskal zaleen Topaguneak, bide batez petankaren antzekoa den jokoa, batetik, eta euskara, bestetik, sustatzeko. Aurten, guztira 8 talde lehiatu dira, eta guztira 31 partida jokatu dira, giro onean. Botxak etorkizuna du Irurtzunen, argi dago.

Astelehenean jokatu ziren aurrefinalak eta finalak. Final handian Julen Iribarren eta Iñaki Juango Haur Aitor Albizu eta Julen Martiarena hartu zituzten menpean, 8 eta 15. Iker eta Asier Jimenez izan dira hirugarrenak eta Iñago Albizu eta Aitor Saralegi laugarrenak.

Atletismoa



Aurten Dorraon izango da.

Ergoienako Bira gertu

Irailaren 17an, 17:00etan, Dorraon

Aurten Dorraon izango du abiapuntu eta helmuga XII. Ergoienako Bira. Irailaren 17an jokatu da, larunbatean, 17:00etatik aurrera Dorraon. Izena ematea egun berean egingo da, ordu bat lehenagotik. 8,5 km-ko lasterketa da Ergoienako Bira. Dorraotik abiatuta, Unanura joango dira korrikalariak, atzera ere Dorraotik pasatzeko, berriro Unanura joateko, ondoren Lizarragaraino heltzeko eta proba Dorraon bukatzeko. Proba Sakanako Koparako baliagarria izango da.

Triatloia



Igeriketa tartea bukatzen. UTZITAKOIA

Iñaki Gallego 12.a Espainiako Paratriatloi Txapelketan

Asteburuan Gironako Banyolesen Espainiako Triatloi eta Paratriatloi Txapelketa jokatu da, elite eta adinen arabera multzoen artekoa. Bertan aritu da Trigo talde beasaindarrarekin aritzen den Iñaki Gallego. Normalean ohiko probetan aritzen da Gallego, baina hankan minusbaliotasun txikia dauka eta, horregatik, Espainiako Paratriatloi Txapelketan aritu zen. Ongi aritu zen altsasuarra, sailkapen orokorrean 12.a eta bere mailan, PT4 gizonezkoen mailan, 4.a sailkatu baitzen (1:17:46). "Bukaerara arte aurrean egon nintzen, domina postuetan, baina beroaren ondorioak hasi nintzen nabaritzen. Hala ere, halako txapelketa ofizialetan lehen aldiz aritua izan honetan lortutako emaitzarekin kontentu nago" adierazi zuen.

SAN JUAN ETA ZUMAIA

Igandean 19. San Juan Triatloi jokatu zen -750 m igerian, 22 km txirrindulari eta 5,5 km korrikari. Iñigo Sevillano (1:11:15) eta Ana Casares (1:21:01) izan ziren onenak. Sakana Triatloi Taldeko Mikel Lakuntza 29.a sailkatu zen (1:28:48). Larunbatean Pello Osorok (55:52) eta Mireia Arrillagak (1:07:49) irabazi zuten V. Zumaia Sprint Triatloia. Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza 110.a sailkatu zen (1:06:42) eta Aritz Igeltz 156.a (1:09:20).

Txirrindularitza

Maialen Aramendiarendako brontzezko bi domina

Espainiako Junior mailako Txirrindularitza Txapelketan erlojupekoan eta lineako proban hirugarrena izan da iturmendierra

Asteburuan Espainiako Junior mailako Txirrindularitza Txapelketak jokatu dira Reinosan. Emakumezkoen linea proban Leongo selekzioako Sara Martin izan da txapelduna (2:07:15). Esprintestuan, Valentziako Sandra Alonso izan zen bigarrena eta Maialen Aramendia iturmendierra hirugarrena, biak 2:28ra.

Erlojupekoan (12,2 km) ere hirugarrena sailkatu zen Maialen Aramendia. Txapelduna Nafarroako bere taldekide Miriam Gardachal izan zen (16:50), bigarrena Leongo Sara Martin (16:54) eta hirugarrena Maialen Aramendia (17:23). Hortaz, brontzezko bi dominarekin bueltatu da Reinosatik iturmendierra. Egindako lan bikainagatik, Europako Txapelketan aritzeko hautatu dute Maialen Aramendia, sari bikaina iturmendiarrarendako.



Maialen Aramendia, dominarekin. Europako Txapelketetarako hautatu dute.

Gizonezkoak

Gizonezkoen lineako proban Alex Jaime kataluniarrak lortu zuen garaipena, esprintean (2:24:28). Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Asier Etxeberria (Nafarroa), 35.a izan zen, 1:39ra, eta bere taldekide Juan Riaño, Errioxako selekzioarekin arituta, 95.a sartu zen, 6:33ra. Euren taldekide Xabier Maizak sekulako lana egin zuen

Nafarroako selekzioarendako. Lasterketa hasieran Joseba Otaolak zulaketa izan zuen eta Maiza, Alfonso Gaston eta Iñigo Zabalza hustu egin ziren Otaola aurreko postuetara itzultzen laguntzeko.

Gizonezkoen erlojupekoan (19,85 km) Euskadiko Xabier Mikel Azparrerenendako izan zen urrea (24:42). Asier Etxeberria 26.a sailkatu zen (27:03).

87. Altsasu Txirrindularitza Proba, aldaketekin

SDA-k antolatutako afizionatuen mailako lasterketan ibilbidea antolatu dute, txirrindulariak herrigunetik sarrago pasatzeko

Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) Altsasuko festetan antolatu du afizionatuen mailako txirrindularitza lasterketa, Altsasuko Udalaren eta hainbat entitate eta babesleren laguntzarekin. Lakuntzakoa antolatzen utzi zenez, Sakanan antolatzen den afizionatuen lasterketa bakarra da.

Estatuko proba beterranoena denak aurten nobedadeak izanen ditu, besteak beste ibilbidea aldatzea erabaki baitute SDA-ko arduradunek. Lasterketa ostegunean jokatu da, Altsasuko festetako bigarren egunean, goizeko 10:00etatik aurrera. Ordu bata inguruan despidituko dela aurreikusten da, 124,3 km osatu eta gero. 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulari afizionatu onenak bilduko dira, probak Euskaldun

Txapelketa erabakiko baitu. Tartearen izan dira Rural Kutxa talde sakandarreko txirrindulariak.

Proba aurreko ostegunean aurkeztu zuten SDA-ko ordezkariak, Jone Fresneda presidente berriak, Carlos Villalobos presidente ordeak eta txirrindularitza ardura duen Felix Mazkiaranek. Altsasuko alkate Javi Ollok ere parte hartu zuen ekitaldian, Nafarroako Pilota Federaziozko zuzendari Iñaki Sainzekin batera, ekitaldi berberan 47. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoa aurkeztu baitzuten.

87. Altsasu Txirrindularitza Proba espainiar estatuko "beterranoena, zaharrena, egun jokatzen ari den Espainiako Vuelta baina zaharrago" dela nabarmendu zuen Carlos Villalobosek. Urte luze hauean bertatik gerora profesional handiak izan diren txirrindulariak pasatu izan direla nabarmendu zuen, Valverde, Indurain anaiak



Fresneda, Mazkiaran, Villalobos, Ollo eta Sainz, aurkezpenean. GUZMAN

Pruden Indurainek irabazi zuen Altsasu Txirrindularitza Probako edizioetako bat- eta beste.

Aurten lasterketako ibilbidean aldaketak egitea erabaki dute, "lasterketa festetara gehiago hurbiltzeko. Txirrindulariak aldi gehiagotan pasako dira Altsasutik, 10 aldiz guztira, eta probak presentzia askoz ere handiagoa izango du herrian" azaldu zuen Felix Mazkiaranek. Horrela, Lizarragako kateko igoera bertan behera

gelditu da eta Altamira bi aldiz gehiago gainditu beharko dute txirrindulariek, 5 aldiz guztira. Horretaz gain, Urdaindik igerilekueko bidea hartuko dute bitan, San Pedrotik Altsasura heltzeko, eta azkenengo kilometroak Ameztian eta Ibarrean egingo ditu lasterketak, Lanbide Heziketa Institututik San Juan kalera joan eta bertatik helmugara iristeko, Sociedad Deportiva Alsasuaren egoitzara, Altzania kalera.

Futbola



Etxarriko irabazleek irabazi dute 3x3 Futbol Plazako finala. OSASUNA FUNDAZIOA

Los tres mosqueteros irabazle Osasuna 3x3 Futbol Plazan

Osasuna Fundazioako XII. 3x3 Futbol Plaza Txapelketako finalak jokatu ziren agorrilaren bukaeran Iruñean. Etxarri Aranazko kanporaketan lehen mailan irabazlea izan zen Los Tres Mosqueteros taldea -Mikel Iribarren, Iñaki Rekalde eta Eladio Javier Llorente- izan zen garailea. Trofeoa, tableta eta Fun-

dazioko opariak jaso zituzten.

Etxarri IMQ Kopan

Liga hasi aurretik IMQ Kopa jokatzen ari da Etxarri. Leitzako aurrearraren kontra 1 eta 0 galdu zuen asteburuan. Igandean Lekunberriko Beti Kozkorren kontra ariko da San Donato zelaian, 17:30ean.

Txirrindularitza

Josu Etxeberria, kadeteen Arabako Itzuliko liderra

Igandean hasi zen kadeteen mailako Arabako Itzulia, Gasteizen jokatutako etaparekin. Egun gorabeheratsuan, azkenean boskote bat iritsi zen helmugara eta Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria izan zen azkarrena (1:16:09). Burundako Quesos Albeniz taldeko Marcos Pisón bosgarrena izan zen, denbora berean. Bere taldekide Unai Villalobos 11.a eta Ailetz Lasa 13.a sailkatu ziren. Irabiako Urko Gorriti 17.a sartu zen, Beñat Etxezarreta 18.a, Imanol Galarza 19.a, Unai Lizarraga 37.a eta Iker Cerviño 38.a. Xabier Mauleon 39.a sartu zen, kontrolatik kanpo. Arabako Itzuliko 2. etapa Artziniegan jokatu da, igandean.

BEZPERAN, LUKINEN

Larunbatean kadeteen eta jubenilen lasterketa jokatu zen Lukinen (84 km). Arabarrak taldeko Martinez de Albeniz juniorrak irabazi zuen proba. Josu Etxeberria kadetea bigarrena sailkatu zen, Imanol Galarza 13.a eta Beñat Etxezarreta 20.a.

Kirolegia

Monitoreek euskararen erabilpenean asko egin dezaketelako

ALTSASUKO KIROL ESKOLETAKO ETA ATABOKO 19 MONITOREEI KIROLA EUSKARAZ KANPAINAKO "HEZITZAILEEK ASKO EGIN DEZAKETE" TAILERRA ESKAINI DIE MANK-EK, IKASTAROETAN EUSKARAREN ERABILPENA SUSTATZEKO

Hastear daude 2016/2017 denboraldiko kirol ikastaroak. Asko dira kirol ikastaroetatik pasatzen diren sakandarrak. Ikastaro horietan ere euskara sustatzearren garrantziaz jabetuta, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Altsasuko Udaleko Kirol Zerbitzuaren laguntzarekin, Kirola Euskaraz kanpainaren barruan "Hezitzaileek asko egin dezakete" izeneko lau orduko iraupeneko ikastaroa antolatu zuen agorriaren bukaeran, Zelandi kiroldegian. Bertan Altsasuko kirolekoletako eta Ataboko 19 monitorek hartu zuten parte, euren entrenamendu eta klasetan euskara sustatzeko erramintak eta estrategiak lantzeko.

"Ikastaroaren helburua da kirol



Monitoreak, euskara gehiago erabiltzeko erabili ahal dituzten tekniketan jantzen.

jardueretan euskararen erabilera sustatzea, eta, horretarako, hainbat estrategia eta tresna eskaini zaizkie monitoreei, neurri handi batean haien esku baitago entrenamenduetan erabiltzen den hizkuntza.

Monitoreei aukera eman zaie bideo grabazioen bidez egoera errealeko adibideak ikusteko eta jolas eta dinamiken bidez estrategiak praktikan jartzeko" adierazi dute Mankeko euskara teknikariek.

Mendia

Javier Zeberio Cho Oyu helburu

Joanma Romero valentziarra lagun duela ekin dio espedizioari

Irailaren 2an Nepaleko bidea hartu zuen Javier Zeberio Arraras bakaikuarrak. Joanma Romero valentziarrarekin batera Cho Oyu (8.201m) igotzea da asmoa. Mendian nahikoa esperientzia du bakaikuarrak: Mont Blanc (4.808m), Elbrus (5.642m), Alpeetako eta Andeatoko zenbait mendi, Lenin gailurra (7.134m), Muztagh Ata (7.546m)... eta orain zortzimiletarako saltoa eman nahi du. Joanma Romero bidelagun izan zuen Leninen eta Muztagh Atan, eta Romerok beti buruan Cho Oyu zuela eta, behin zortzi milako bat egitea erabakita, Cho Oyu aukeratu zuten. Nonbait, aurreko urtean Nepalen trekkinga egiten ari zela gorpuztu zen ideia.

Halako espedizio bat antolatzea lan handia du eta sakrifizio handia eskatzen du, baina ilusio eta gogo handiz dagoela aitortu du bakaikuarrak. Bertara errespetu handiarekin joan behar dela ere argi du eta espero du zortzimiletatik zortzimiletara bitarteko saltoa handiegia ez izatea.



Javier Zeberio bakaikuarra. DE ZERO A CIM

Espedizioa aurrera ateratzeko zenbait zailtasun izan dituzte: bidai aldaketak, tramite burokratikoekin arazoak... eta horregatik Cho Oyuko gailurra egiteko dituzten egunen kopurua gutxitu zaie. Irailaren 14an iritsiko dira kanpamendua nagusira eta urriaren 3an atera beharra dute bertatik. Jabetzen dira duten tarte laburra dela, baina badakite bertan espedizio gehiago badaudela eta espero dute guttien artean aurrera egiteko gai izango direla eta gailurra egiteko

De zero a cim

Facebooken, Zeberioaren eta Romeroren espedizioaren nondik norakoak jarraitzeko.

aukera izatea. Asmoa bi kanpamendua jasotzea da, bata 6.400 metroan eta bestea 7.000 metroan, eta bigarrena 7.450 metroan igotzea gailur saiakera egiten dutenean.

Racetracker sistemari esker, satellite bidez bi mendizaleen ibilbidea jarraitu ahal izango da zuzenean ondoko webean: www.racetracker.es/rt/dezeroacim/cho-oyu.

Saskibaloia

Iñigo Zabalok Basket Navarran jarraituko du



Zabalok Basket Navarran jarraituko du.

Zilarrezko mailan lehiatuko da Nafarroako taldean

Basket Navarra taldeak 2016/2017 denboraldia prestatzen jarraitzen du. Aurreko urtean Urrezko mailan aritu ondoren, orain Zilarrezko ligan lehiatuko da saskibaloiko talde nafar onena. Taldeak bertako jokalarien apustua sendotu nahi du. Horren isla da Iñigo Zabalo altsasuarra -20 urte, 1,85 m-taldean bigarren denboraldia egitea. Altsasu Saskibaloiko Taldean trebatu zen Zabalo, eta gero San Cer-

nin eta FNB Ardoi taldeetan ibili zen. Ardoin zebilenean Basket Navarran hainbatetan parte hartzen hasi zen. Aurreko denboraldian, LEB Urrezko mailan, 18 partidatan izan zituen minutuak Zabalo. Egun Joaquin Pradoren aginduetara dago, bere ibilbidean behar bezala aurrera egiteko.



Kategoria libreko partida bat. Giro bikaina izan zen Zelandin. LARRAITZ AMADOZ

21 talde 3x3 Saskibaloiko Torneoan

Alipendik Zelandin antolatutako torneo arrakastatsua izan zen oso

Aurreko urtean saskibaloiko zale altsasuar batzuk 3x3 Streetball basket txapelketa antolatu zuten Altsasuko Gaztetxoko ondoko parkean. 9 talde lehiatu ziren eta giro polita izan zen. Aurten, talde gehiagok izena emango zutelakoan, txapelketa Zelandi kiroldegian antolatzea erabaki zuten eta txapelketa antolatzearen ardura Araiako Alipendi Saski taldeak hartu zuen. "Taldea horretan gabilta sakandar batzuk. Araiako kiroldegian ez daude horrenbeste saski eta horregatik Zelandin antolatzea erabaki genuen" adierazi digu antolatzaileetako batek, Saracibarrek. Horrela, larunbatean jokatu zen Alipendi-Altsasu 3x3 Saskibaloiko Torneoa. 3 saskibaloiko jokalariz osatutako taldeak lehiatu ziren.

Erantzuna bikaina izan da. Maila librean 17 talde lehiatu ziren eta

emakumezkoen mailan 4. Ikusle asko gerturatu ziren eta DJ eta speakerrei esker sekulako giroa egon zen Zelandin. Emakumezkoetan Panathimancasek irabazi zuen eta maila librean Vodka juniors-ek, biak Iruñekoak. Irabazleek 100 euro jaso zituzten eta bigarrenek produktu loteak. Horretaz gain, saskibaloiko jokalariek ezagunak utzitako kamisetak zozketatu ziren.

Hurrena ekainean

"Torneoaren helburua saskibaloia sustatzea da, saskibaloian aritzea gustuko dugunak bildu eta egun polita pasatzea. Saskibaloiko zale asko dituzte Sakanan. Kontua da Nafar Kirol Jolasetatik aparte hemen ez dela txapelketarik antolatzen, eta horregatik bururatu zitzaizgun guri torneo antolatzea. Erantzun ona izan du, baina badakigu ere bada-goela etortzerik izan ez duen jendea, euren taldeekin denboraldi berriari ekin diotelako. Horregatik hurrengo urtean ekain aldera antolatu nahi dugu torneo, ikasturte bukaeran" gaineratu du Saracibarrek".

Automobilismoa

Goikoetxea 3.a Espainiako Lur Gainekoan

Bero itogarriarekin jokatu zen, asteburuan, Cerverako Rallya, Espainiako Lur Gaineko Rallya-ko balia garria zen proba. Jorge del Cid eta Nerea Odriozolak (Mitsubishi EVO X) irabazi zuten proba. Carlos Aldecoa Etxanopilotu nafarra eta Javi Goikoetxea Oraa koplota (Ford Fiesta R5) zortzigarrene-

nak izan ziren. "Oso rally gogorra izan zen, bero handia. Kopilotu batzuk erretiratu egin ziren berogatik. Guk freno arazoak izan genituen. Hala ere, zortzigarrenek izan ginen eta Espainiako Txapelketan hirugarren postuan jarraitzen dugu" adierazi digu Javi Goikoetxeak.

Garikoitz Flores bigarrena Valdezcarayn

Asteburuan jokatu da 24. Valdezcaray igoera, Albatik. 29 ibilgailuk lortu zuten proba despeditzea, eta lauk ezin izan zuten bukatu. Arkaitz Ordoki (BRC B49) izan zen azkarrena (4:48.185), Garikoitz Flores 18 segundo aterata (4:56.180).



Berogatik, rally oso gogorra izan zen Cerverakoa. LANDER ZABALETA

KULTURA PLANAREN BILERA ALTSASUN:
Irailaren 28an, asteazkenean, Iortia kultur gunean, 17:00etatik 19:00etara izanen da. Kultura Zuzendaritza Nagusiak bere 2016-

2019 planaren parte hartze fasearen 2. fasea martxan jarriko du, kultura plan parte-hartzaile eta plurala egiteko. +guaixe.eus

kultura >>

Zer egin **liburuekin?**

Izenburu hori du Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako hitzaldi lantegiak. Yolanda Arrieta idazleak umeekin liburuak irakurtzean nola jardun eta zer egin azalduko du. Bertaraten direnek haur literaturaren aholko baliabideak ezagutuko dituzte modu praktikoan, jokoaren bidez. Haur Literaturako informazio gaurkoa non topatu ere azalduko du Arrietak.

Saioa gurasoendako, zaintzaileendako, irakasleendako, irakasle-gaiendako, monitoreendako eta liburutegiko arduradunendako da. Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitzan izanen

da, lastailaren leian, larunbatean, 10:00etatik 13:00etara.



Izena ematea

euskara1@sakana-mank.eus e-posta helbidean. Matrikula 10 eurokoa da. Plazak mugatuak dira.

bazterretik

Argiñe Berastegi



Buddha Eden, Jardim da Paz

Eskultura eta natura gustuko badi-tuzu eta inoiz Portugalera joateko aukerarik baduzu, Europako ekialde estiloko lorategirik handiena bisitatzera gonbidatzen zaitut. Lisboatik ia 80 kilometrotara, Obidos herritik gertu, Bombarral udalerrian aurkitzen den lorategi eder honek 35 hektareatik gora ditu. Bertan Budak, pagodak, terrakotazko eskulturak edota eskultura modernoak topa ditzakegu, lorategian barrena antolatuta. Obraizugarri hau sortzeko marmol eta granitozko sei milioi tona beharrezkoak izan direla esaten da.

Talibanek 2001ean, Afganistan erdialdean, Bamiyango bailarako ikur budista guztiak suntsitu zituzten. Sarraski kultural horrekin erabat hunkituta, Joe Berardok egoerari konponbidea aurkitu nahi izan zion. Gandhara artearen ikur hauen suntsitzearen ondorioz, portugesak Jardim da Paz lorategia sortzeko erabakia hartu zuen.

Joe Berardo Portugalgo 10 pertsona aberatsenen artean eta Forbes listaren arabera munduko aberatsenen artean kokatzen den enpresa gizona da. Sektore des-

berdinetako enpresak ditu, metalgintza, ostalaritza edota ardoaren sektorekoak hain zuzen ere. Horretaz aparte, arte bildumagintzan eragin handiko gizona da. Izan ere, aipatutako artez jositako lorategia duen ardo upategiaz gain, Lisboako Belen auzoan arte garaikideari dedikatutako museo bat du, Museo Colecao Berardo. Buddha Eden lorategira bueltatuz, lorategi hau nik hiru zatitan banatuko nuke: Budari dedikatutakoa, terrakotazko soldaduen eta eskultura modernoari dedikatutako espazioa.

Lehenengoan, ongi etorria eman go digun urre koloreko Buda erraldoia aipatzekoa da.

Bigarrena, urdinez margotuta dauden 700 terrakotazko soldaduak topatzen ditugu. Lorategian bi multzotan banatuak daude eta bakoi-tza orain dela 2.220 urte lurperatuak izan zirenen kopia bakarra da. Azkenekoa, eskultura modernoari eskainitako espazioa. Lorategiaren zati honetan, eskultura modernoek landareekin bat egiten dute, beste lore edo zuhaitz bat izango balira bezala, naturatik sortuak. Benetan, espazio berezia eta interesgarria. Bertan murgildu eta galtzeko horietakoa.

Oporretako argazkiak, eguerdira arte

Gaur 12:00etan despiditzen da Udako Argazki Lehiaketara zure oporretako argazkia www.guaixe.eus web gunera aurkezteko epea

railarekin batera asko betiko martxara bueltatu dira, beste batzuk eskapadaren bat egingen dute, baina sakandar gehienok oporrak despidituta ditugu. Eta haietan ateratako argazkiak bati eta besteari erakutsi dizkiogu ere. Bada, horietakoren bat edo batzuk (bost arte) Guai-xeren Udako Argazki Lehiaketara aurkeztu dezakezu (ditzakezu).

www.guaixe.eus web orrian Udako Argazki Lehiaketarako propio sortutako atalean sartu behar da lehiaketan parte hartzeko. Hainbat sakandarrek euren argazkiak aurkeztu dituzte dagoeneko. Lehiaketara aurkeztutako argazki guz-tiek bi sarietako bat eskuratu dezake-te. Bata, epaimahaiak ematen du. Bestea, web orriko erabiltzaileek euren bozekin. Azken horiek ostiral eguerditik aurrera, hamar egunez, botoa emateko aukera izanen dute. Ez galdu aukera, begiratu oporren argazkien artean eta



parte hartu. Zer gordeko ote du Guaixe-ko opari kutzak?

Kirola euskaraz

KIROL IKASTARoen HIZKUNTZA ERABAKITZEKO JARRAIBIDEAK

% 100

A talde tipologia

Kasle guztiak ulertzen dute euskara

- >> Ikastaroa euskaraz izanen da.
- >> Ikasleei bakarka zuzentzean begiraleak beti errespetatuko du solaskidearen hizkuntza-aukera.

% 50 ↑

B talde tipologia

Kasleen erdiak baino gehiagok ulertzen du euskara

- >> Ikastaroa nagusiki euskaraz izanen da.
- >> Begiraleak premiazkoa ikusten duenean, laburpena edo bakarkako azalpenak gaztelaniaz emanen dizkio euskaraz ongi ulertzen ez duenari.
- >> Ikasleei bakarka zuzentzean begiraleak beti errespetatuko du solaskidearen hizkuntza-aukera.

% 50 ↓

C talde tipologia

Kasleen erdiak baino gutxiagok ulertzen du euskara

- >> Ikastaroa nagusiki gaztelaniaz izanen da, baina monitoreak euskarari sarbidea emanen dio (agurrak, animozko hitzak, zenbakiak eta horrelakoetan).
- >> Euskara ulertzen dutenei bakarka zuzentzean euskaraz egingen die monitoreak.

Mank
Sakanako

Euskara Zerbitzua eta Kirol Zerbitzua

FESTAK

>> Irailak 14, asteazkena

10:30ean 2015eko kintari harrera eta zapien janzea Udaletxe parean.
10:30ean Hamaiketako Gaztetxean, Peñen Batzordeak eskainia.
10:30ean Udaltzaren irteera Altsasuko Txistulariez lagunduta.
12:00etan Festen eztanda handia! Suziri jaurtiketa, azken ezkila-jotzea, Altsasuko Gaita-jotzaileak, Altsasuko Txistulariak, fanfarrea, dantzariak, peñen desfilea, Altsasuko zortzikoa eta kalefira peñen txarangarekin.
16:00etan Peñen kafea eta kalejira Foru Plazan.
18:00etan TTR teatroa konpainiaren Salam! umorezko ikuskizuna.
19:30etik 22:00etara Dantzaldia London orkestrarekin, Foru plazan.
19:30ean Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru plazan.
20:00etan Peñen jaitziera Zumalakarregi Plazatik abiatuta.
21:15ean iristea Foru plazara.
21:30ean Altsasuko Zortzikoa Altsasuko Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.
22:00etan Zezensuskoa, Foru plazan.
22:30etik 00:30era Gazte Gauak Lavaderon DJ Sergueyrek.
00:00etik 3:00etara Dantzaldia London orkestrarekin, Foru plazan.

>> Irailak 15, osteguna

9:00etan Dianak Altsasuko gaita-jotzaileekin.
10:00etik 13:00etara LXXXVII. Altsasu Txirindula Lasterketa. Irteera, helmuga eta sari banaketa Altsasuko Kirol Elkartearen egoitzan.
11:30ean Hamaiketako, Foru plazan, Zubeztia gastronomia-elkarteak eskainia.
12:00etan *Más más magia* magia ikuskizuna Navarcadabrarekin, Iortia zabalgunean.
13:30ean Eguerdiko kontzertua Jaione & Aintzane altsasuarrekin, Foru plazan.
16:00etan Peñen kafea eta elkarte-poteoa, Foru plazatik. Merienda ibilbidean zehar.
17:00etan Play Back lehiaketa eta txokolate jana, Foru plazan, txokolate jana Zubiondo elkarteak antolatua.
18:00etan Pilota partida profesionalak

Burunda frontoian.
19:30etik 22:00etara Dantzaldia Ganabera taldearekin, Foru plazan.
19:30ean Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru plazan.
20:00etan Peñen jaitziera Zumalakarregi Plazatik abiatuta.
21:30ean iristea Foru plazara.
21:30ean Altsasuko Zortzikoa Altsasuko Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.
22:00etan Zezensuskoa, Foru plazan.
22:30etik 00:30era Gazte Gauak Lavaderon DJ Sergueyrek.
1:00etan Kontzertua: Los del Rayo, Foru Plazan.

GARRAXI FESTA

>> Irailak 15, osteguna

17:00etatik 20:00etara Fermin Boomhead meets Oroel Goldenboy, jamaikar musika, karpan.
22:00etatik aurrera Mandela Selekta (punk-rocka), Asalto (punk), Rude Kanka Sound (Ska, reage, Jungle), Boneman+Leñah Selekta (reage, jungle), Txen dj eta Loksea dj (technoa), gaztetxean

HERRI MUGIMENDUEN EGITARUA

>> Irailak 14, asteazkena.

Elkartasun eguna
10:00etan Gosaya, gaztetxien.
13:00etan Elkartasun brindisa.
15:00etan Elkartasun bazkaya.
16:00etan Kafiek.
18:00etan Jokuek, gaztetxien.
20:00etan Bajadika.
22:00etan Elektrotxufla elektrotxaranga.
23:00etan Dj-k, karpan.
5:00etan Magrak, gaztetxien.

>> Irailak 15, osteguna. Altsun

eskuaz eguna
12:00etan Kalderete prestaketa, Enrike Zelaiarekin, karpan.
15:00etan Kalderete txapelketa, karpan.
16:00etan Kafiek.
18:00etan Elkarte poteua.
20:00etan Bajadika.
22:00etan Kantaitan, karpan.
5:00etan Magrak, gaztetxien.



Festen aurreko sariak

Altsasuko Udalak banatu ditu festetako kartel lehiaketako sariak. Helduen mailan Xabier Mendi Diezen *Biraka dantzan* kartela herri bozketa bidez aukeratu zen egitarauaren azalerako. Mendiak 2010ean eta 2013an ere saria irabazi zuen.

Bere anaia Julenek jaso zuen saria. Haurren mailan Madi Lizarraga Senarek jaso du saria. Maila horretan adin tarte handia hartzen denez, epaimahaiak June Otxoa Diaz aipamen berezia ematea erabaki zuen.



Festan sexu erasoek tokirik ez dute

Altsasuko mugimendu feministako kideek festen atarian adierazi dutenez, "festetan iraintzen ez gaituen modura dantzatu, aske izan eta ongi pasatu nahi dugu. Horregatik, giro polita eta osasuntsua sortzea izanen da gure aurtengo erronka. Inolako jarraimatzarik gabeko jaiak nahi ditugulako". Feministak erasotzaileei ere zuzendu zaizkie: "ez ditugu, ez babaseoak, ez bortxaketak eta ukituak onartuko. Erasoen aurrean erantzun sendoa, kolektiboa eta konbatiboa izango dugula argi izan dezaten."



Intxostiako festak 5. aldiz ospatu ziren.



Extremadurako egunaren ospakizunak.



Arroz aleen ekarpena

Altsasun dauden kultura eta herrien arteko topagune "bikaina" izan zen joan zen urtean Munduko Arrozak egitasmoa. "Arrakasta" haren ondoren, Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak, Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Altsasuko Herri Mugimenduak Munduko Arrozak saioa berriro antolatzea erabaki dute. Festen egitarauaren barruan, Zubeztia plazan jarritako karpan izanen da, hilaren 18an, igandean, 11:00etatik aurrera.

Hara joaten direnek Senegalen, Gambia, Marokon, Valentzian, Altsasun eta beste hainbat tokietan arroza nolaprestatzen den ikusteko eta ikasteko aukera izanen dute. Horrekin batera, karpan henna tailerra izanen da, nahi dutenek euren eskuak produktu horrekin edertzeko. Immigrazio Zerbitzuak, bestetik, sentsibilizazioa eta hausnarketarako tartea prestatuko du eta errefuxiatuek Grezian bizi duten egoera nolakoa den ezagutzeko aukera izanen da. Sorpresak ere iragarri dituzte. Antolatzaileek altsasuarrek eta bisitariak ekimenean parte hartzeraz gonbidatu dituzte.



Arroz sukaldari izan nahi?

Munduko Arrozetan zure erre-zeta jendaurrean prestatu nahi duzu? Antolakuntza errazteko hots egin 648 070 710 telefonora edo immigrazioa@sakanamank.eus e-posta helbidera idatzi.

BETI BEZALA FESTAREN ERDIAN!

Kaixo
Kafetegia - Jateketa

GARCIA XIMENEZ 20-22 TFNO. 948.46.91.24 ALTSASU

OGI BERRI
Altsasu

Ongi pasa festak!

CITROËN JUMPY BERRIA EZER EZ DA EZINEZKOA

3 LUZERA: XS-M-XL NEURRIAK
 1.90 METROKO ALTUERA* | ALBOETAKO ATEAK
 ESKU LIBREKO IREKIERA IRRISTAKORRAK
 MODUWORKEKIN** 4M BAINO GEHIAGOKO
 KARGA LUZEERA

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËNEK nahigo TOTAL *Furgonerako aukera XS eta M neurrietan eta Combirako XS, M eta XL. **XL neurrian.
 KONTSUMO MIXTOA (L/100km)/ CO2 ISURIA (G/KM): 5, 1/5,6 - 133/148

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. - ALTSASU - 948 562 261 - IRURTZUN - 948 600 657 - www.autsanmiguel.com

CITROËN

Festa onak izan!

[f](#) [t](#) [v](#) [u](#) [y](#) [p](#) [i](#) [n](#) [e](#) [s](#) [c](#) [i](#) [t](#) [r](#) [o](#) [e](#) [s](#)

Etxajua zeinek piztu, erabakita

Aurten Altsasuko EHBilduri tokatzen zaio festetako txupinazioa botatzea. "Proposamenak jaso eta gure oinarrikerri erabaki zuten era demokratikoan aurtengo festen hasierako suzuria Gure Esku Dagok piztea". Erabakiaren zergatiak azaldu zituen Arantza Bengoetxeak: "Alde batek, eskubide demokratikoen alde egiten ari diren lan izugarria aipatu nahiko genuke. Izan ere, erabakitzeko eskubideari buruz ari garenean demokraziari buruz ari gara. Demokrazian sakontzea hain garrantzitsua den une hauetan, talde honek altsasuar guztien bilgune izan daitekeen erabakitzeko eskubidearen alde egiten duen lana mirestekoa iruditzen zaigu".

Bestetik, gogorazi zuen "eskubide demokratiko honen alde herrian eztabaida, antolakuntza eta elkarlana" sustatzen dituztela. Eta, azkenik, Gure Esku Dagok heldu den urterako herri galdeketa iragarri duela nabarmendu zuen. "Erabakitzeko eskubidea Altsasun bertan gauzatu nahi dute. Uste dugu kontsulta egiteko prozesua herritar guztiak, bakoitza bere ezberdintasunetik, elkartu eta elkarlanean ari zeko proiektu interesgarria dela, eta era honetan gure bultzadaxoa eman nahi diogu. Gure ustez, giltzarria da herriari hitza ematea, hau da, bere erabakiak hartzeko tresnarik garrantzitsuen ematea". Taldearen kantari aipamena eginez, koaliziokoek "festetan zehar jende zoriotsua, herri libre batean izango garela" espero dute.

+www.guaixe.eus

Altsasuarrei galdetu nahi diete

Gure Esku Dago taldeko Aitziber Etxaiz, Itziar Flores eta Bel Pozueta festetako hasierako etxajua pizteko ardura haiei ematearekin eskertuta daude. Floresek esan digunez, "poz handiz" hartu dute; "heldu den urtera begira ditugun proiektutarako bulkada handi bat da; jende guztiak taldea ezagutarazteko eta gure proiektua zein den ezagutarazteko". Taldeko bi kide izanen dira etxajua piztuko dutenak.

2017 urtean erabakitzeko eskubidearen inguruko herri galdeketa antolatu nahi du Gure Esku Dagok Altsasun. "Helburu potentia, handienetakoa" dela aitortu digute. Altsasuarrei galdera luzatu aurretik lana egin behar dela azaldu digu Etxaizek, "baina gogotsu gaude". Argitu duenez, lan "astunena" galdeketa egin ahal izateko sinadura bilketa egitea da. Altsasuarren %10en sinadura jaso behar dute. Babes hori lortuz gero, "esan nahiko luke Altsasuko herria prest edo ados dagoela galdeketa egitearekin", zehaztu du Pozuetak.

Taldearen hurrengo urratsa "ideologia eta pentsaera ezberdinetako jendearekin ahalik eta zabalen den talde bat sortzen" saiatzea izanen da. Pozuetak haren zeregina zehaztu du: galdeketa adostea. Datarik ez dute zehaztu, baina maiatzean edo garrilean izanen dela aurreratu du Floresek, "bai Altsasun, baita Sakanako beste zenbait herritan ere". Beste herrietako taldeekin elkarlanean ari direla argitu digu



Aitziber Etxaiz, Itziar Flores eta Bel Pozueta, Gure Esku Dago taldeko kideak.

Etxaizek: "Errazagoa da Irurtzun, Lakuntza eta Olatzagutiarekin batera lan egitea." Pozuetak argitu duenez, Sakanako taldea duela hiru hilabete jarri zen martxan. "Azken bi urtetan lortu ez dugu-

na dugu orain, Sakana mailako dinamika. Uste dut indarra ematen digula. Ikusteko eta sinesteko bide onetik goazela."

Erabakitzeko eskubidea "herritar bezala dagokigun eskubide demo-

kratiko bat" dela zehaztu digu Floresek. Etxaizek gaineratu duenez, "herri bat gara, eta herri bat garelako erabakitzeko eskubidea aldarrikatu behar dugu. Herri bat gara eta galdetu nahi dugu, besterik gabe". Altsasuarrei, bestalde, taldera batzeko gonbidapena egin diete: "ateak pentsamendu guztietara irekiak gaude, honek ez du ideologia zehatzik. Eskubide bat, pertsona gisa dagokigun eskubide bat da eta eskubide horren alde edozein etor daiteke taldera; zain gaude". Pozuetak gaineratu duenez, "edozein motako ekintzetan parte hartuz aberasten garela ikusten dugu, beraz, parte hartzeak merezi du. Norberak erabakiak hartzea. Nik uste, gure gizartean badagoela ohitura gauzak utzi eta besteek edozein arlotan erabakitzeko. Gu erabakitzeko gai gara, gure etorkizunarekin, gure pertsonarekin. Aberasten gaituelako, merezi du".

SAKANA
Itsasi AEK euskaltegia

Gartzia Ximenez 46
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.eus

DIRU-LAGUNTZAK/ BECAS

Sakanako Mank: BEKAK

aek euskara praktikoa

100% AFECTIVO

Eman izena **Matriculate**

TABERNA BILTOKI JATETKEA

KARTA BOKATAK BARRAN

Ongi pasa festetan!

FESTETAKO MENUA 25€ (BEZ BARNE)

SARRERAK AUKERAN

- Upategiko urdaiazpikoa
- Fritoak
- Patea
- Entsalada epela
- Baratxuri eta ganba nahaskia

BIGARRENAK AUKERAN

- Legatza
- Ajoarrieroa
- Txahal buztana
- Entrekota
- Sahieskiak

POSTREA URTEKO ARDOA edo URA KAFAA

948 467 876 · Altsasu

MAPFRE

Ongi pasa festetan!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
jimazpr@mapfre.com · 948 563 354
San Juan 48 behekoa · Altsasu

Empieza por la E

¿Qué es aquello cercano, afectivo, práctico, lleno de valores y beneficios, transmitido en la infancia o adquirido en edad adulta, que provoca complicidades, emociones y sentimientos positivos y cuyo uso genera disfrute y satisfacción facilitando nuestra socialización?

*Eeee
eee
...*

¡Esta Claro! Argi dago!

euskara!

MATRICULATE

Más de 30 euskaltegis en toda Navarra
30 euskaltegi baino gehiago Nafarroan

Antolatzaileak/Organizan:
Entidades locales con servicio de euskera
Euskara zerbitzua duten toki entitateak

G asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 15%	euria: 10%	euria: 15%	euria: 5%	euria: 15%	euria: 25%	euria: 30%
Min: 12 Max: 22	Min: 11 Max: 25	Min: 12 Max: 27	Min: 14 Max: 31	Min: 15 Max: 28	Min: 15 Max: 26	Min: 15 Max: 23

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	36.5	13	0
Etxarri A.	36	9.8	0
Altsasu	34	12	0
Aralar	28	11	0
Urbasa	30.5	8	0

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
9	16	23	1

EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

www.ventanasegoki.com egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

Acrylcolor SISTEMA BERRIA KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

IRAILEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

Ekain berri

AQUARIVM

CAMPING ARTAZA

lacturale

g

gaztezulo

>> **11**
galdera

Ainhoa Lopez de Goikoetxea
Ikaslea

Testua: Larraitx Amadoz Lazkano



BADATOR

Sakanako gida

2017

GORDE ZURE LEKUA 948 564 275

107.3 FM

beleixe

www.guaixe.eus-en on-line

948 564 275

1. Nola sentitzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoko emaitza altuena duen ikaslea?

Oso pozik, egia esan. Egindako esfortzuak merezi izan duela uste dut, eta emaitza horren erakusgarri izan dela. Lan handia behar da hau ateratzeko, eta ordu asko sartu ditut kurtso osoan. Baina esan beharra daukat, hainbeste ordu sartu eta gero, saria ere itzela dela.

2. Bigarren Batxilergoa ez da lan erraza ezta?

Bigarren maila nahiko gogorra da bai. Beste ikasturteak baino laburragoa da, baina exigentzia maila oso altua da, eta lan asko egin behar da urte osoan. Duela urte gutxi, gainera, selektibitateko emaitzen metodologia aldatu egin zen, eta orain azterketa orokorra eta espezifikoa dauzkagu. 4 puntu gehiago atera ditzakezu egin nahi den ikasketa aukeratzeko, 14 puntu lortu arte.

3. Zein ikasketa mota aukeratu zenuen Batxilergoan?

Zientzia eta Ingeniaritza adarra. Zientzia mundua beti gustatu izan zait. Teknologikoa eta osasun adarren artean aukeratzeko pentsatu nuen, baina azkenean tartean dagoen ingeniaritzakoa hartu nuen.

4. Orain Unibertsitatera. Zergatik hautatu duzu ingeniaritza industrialia?

Asko kostatu zait erabakitzea. Banekien ingeniaritza bat egin nahi nuela, eta hainbat arlo begiratzen egon nintzen. Etorbizunari begira lan eskaintza gehien ematen zuen ingeniaritza honek eta, horregatik, erabaki nuen alde

honetatik joatea. Ingeniaritza industrialia oso orokorra da, esparru askotan lan egin dezakezu ikasketak hauen bidez. Euskal Herrian lan egitea gustatuko litzaidake, eta karrera honek, printzipioz, hemen aukera asko emanen litzuke.

5. Etorbizunean zertan lan egitea gustatuko litzazuke?

Ingeniaritza industrialia bukatuta, ingeniaritza biomedikuntza master bat egitea gustatuko litzaidake. Medikuntzan ingeniaritza aplikatzea gustatuko litzaidake, osasungintzan erabiltzen diren makinak diseinatzen, adibidez. Dena dela, oraindik urte asko falta dira eta iritzia alda dezaket.

6. Beste ikasketaren bat aukeratzekotan, zer?

Beste zerbait? Biokimika asko gustatzen zitzaidan, pixka bat gehiago osasun aldera bideratuta. Medikuntza ere gustatu izan zait, baina nire izaera kontuan izanda, ikerketa norabidea gehiago gustuko dut. Eta irakaskuntzan aritzea ere gustatuko litzaidake.

7. Nola aurreikusten duzu unibertsitatera eman behar duzun pausoa?

Badakit karrera gogorra hautatu dudala, baina gustatzen zaidana da. Aldaketa handia izanen da, klaseak askoz ere handiagoak, irakasle berriak, garai berri bat, azken finean. Gelakide batzuekin Iruñera bizitzera joanen naiz, esperientzia berria alde horretatik ere, eta hasteko gogoarekin nago.

8. Inoiz suspenditu al duzu?

Egia esan, ez. Baina orain ingenia-

ritza hasi behar naizen aldetik, irakaskairen bat suspendituz gero, ez da ezer gertatzen, beti ikas daiteke gauza guztietatik. Ez nuke arazorik izanen.

9. Zure irakasgai gustukoena?

Matematika, fisika eta marrazketa. Zientzietakoak direnak; oso ongi moldatzen naiz zenbakiekin. Matematika ala fisikako ariketak askoz ere errazago ikasten ditut eduki mamitsu bat baino, errazagoa, dinamikoagoa egiten zait. Letretako irakasgaietan lan gehiago egin behar nuen; zailagoa egiten zitzaidan ikastea.

10. Nola antolatzen duzu zure burua ikasteko?

Ez daukat truko ala irizpide zehatzik. Antolaketa bat izatea oso garrantzitsua da, azken momenturako uzten diren gauzak ez dira normalean oso ongi ateratzen eta. Egunean joan, erreparatu, zerbait ulertzen ez bada hori argitzen saiatu. Azkenerako uzten diren lanekin presio handiagoa sentitzen da eta horrela gauzak ez dira nahi duzun moduan ateratzen; egunero eramanda, lasaiago ibilzaitzke. Eskemak eta laburpenak egitea gustatzen zait, batez ere, historia ala filosofia bezalako irakasgaietan. Ideiak garbi izaten laguntzen dizute.

11. Kanpora ateratzea gustatuko litzazuke?

Beharbada, karrera ikasten nagoen bitartean mailaren bat kanpoan egitea gustatuko litzaidake. Esperientzia berri bat bizitzea, beste hizkuntza bat ikasteko primeran etorriko litzaidake. Bainagero, lan egiteko, hemengelditu nahikonuke.